

# JARDUERA TXOSTENA 2010



## Hirukide

— Kide Ugariko Familien Elkartetako Euskadiko Federazioa —  
Federación de Asociaciones de Familias Numerosas de Euskadi





# JARDUERA TXOSTENA 2010



**Hirukide**

— Kide Ugariko Familien Elkartetako Euskadiko Federazioa —  
Federación de Asociaciones de Familias Numerosas de Euskadi



**2010ko Jarduera - Txostena. HIRUKIDE**

**Ale - Kopurua: 1.100**

**Argitaratzailea: Hirukide**

**Idazketa: 2más2 Publicidad, S.L.**

**Diseinua eta maketazioa: 2más2 Publicidad, S.L.**

**Inprimaketa: Irudi, S.L.**

## **HIRUKIDE**

**Sofia Erreginaren etorbidea, 112**

**01015 Gasteiz**

**T: 902 44 03 03 / 945 25 36 02**

**F: 945 12 35 27**

**hirukide@hirukide.com**

**www.hirukide.com**

## **Antolatzaileak:**



# AURKIBIDEA

ZUZENDARITZA-BATZORDEEN ORGANIGRAMA	04
PRESIDENTEAREN GUTUNA	05
AURKEZPENA	06
BAZKIDEAK	08
JARDUERA ETA GERTAKIZUNAK	10
HIRUKIDE ERAKUNDE ETA ALDERDI POLITIKOEKIN	14
AKORDIO PRIBATUAK	18
HIRUKIDE KOMUNIKABIDEETAN	20
ARGITALPENAK	22



# ZUZENDARITZA- BATZORDEEN ORGANIGRAMA

## AUSARKI

PRESIDENTEA

D. Pablo Jesús Larrabide Bilbao

PRESIDENTEORDEA

D. Alberto Cobo Urkiola

IDAZKARIA

D. Miguel Ángel Díaz Valencia

DIRUZAINA

D. Miguel Pérez Berruete

BATZORDEKIDEA

D. Roberto Arroniz Arbe

BATZORDEKIDEA

Dña. Leyre Río Pinedo

BATZORDEKIDEA

D. Ignacio González Casi

## LASTERBIDE

PRESIDENTEA

D. Ignacio M<sup>a</sup> de Guinea Llop

PRESIDENTEORDEA

D. Ignacio Zaldúa Gómez (†)

IDAZKARIA

D. Miguel Bernar Borda

DIRUZAINA

D. Fernando Ortega Altuna

BATZORDEKIDEA

Dña. Maiteder Jiménez- Eguizabal

BATZORDEKIDEA

D. Carlos Andreu Uribarri

BATZORDEKIDEA

Dña. Adela Eguidazu Buerba

## LILURALDI

PRESIDENTEA

D. Gorka Álvarez San Martín

PRESIDENTEORDEA

Dña. María Gorostidi Pagola

IDAZKARIA

Dña. Stella Gómez García

DIRUZAINA

Dña. Arrate Etxezarreta Arozena

BATZORDEKIDEA

D. Iñigo Abreu de Con

BATZORDEKIDEA

D. José Ángel Medina Murua

## HIRUKIDE

PRESIDENTEA

D. Ignacio M<sup>a</sup> de Guinea Llop

IDAZKARIA

D. Gorka Álvarez San Martín

PRESIDENTEORDEA

D. Pablo Jesús Larrabide Bilbao

BATZORDEKIDEA

D. Miguel Bernar Borda

BATZORDEKIDEA

D. Alberto Cobo Urkiola

ZUZENDARI EXEKUTIBOA

Dña. Natalia Diez- Caballero





## GARAI TXARRETAN, BATUAGO

Beste behin, txosten labur honen bidez, Hirukidekook egin dugun lana, kasu honetan 2010ean, ikusteko moduan eta grafikoki erakutsi nahi dugu. Urte hori gogor eta zailenatariko bat bezala igaroko da historiara milaka familiarentzat, hilabetez hilabete euren lan eta finantza egoera okerrera egiten ikusi baitute.

Badirudi jasaten ari garen krisi ekonomiko sakonak ez duela hondorik jotzen eta esan genezake modu errukigabeen hedatzen jarraitzen duela. Lau milioi langabe baino gehiago, administrazio ugariaren diru-kutxak erdi hutsik, gizarte murrizketak eta nazioarteko merkatuek Damoklesen ezpata gure ekonomiaren gainean dutela... badirudi ez dela urte on bat joan.

Baina Hirukiden beti esan dugun bezala, zailtasunen aurrean erakutsi behar dugu batuago gaudela. Lehenik eta behin, familia bakoitzak; egoerari aurre eginda, baldintza hauetan seme-alabek erantzukizun handia ekar badezake ere, aldi berean zoriontasunerako bermea direla badakigulako. Egun, familia batua eta maitasunez betea lortzea luxu zaila da eta, oztopoen gaintik, ezin dugu altxor hori galdu. Familiak gara Gizarte Gaietako Ministerio edo Sail nagusiak, eta orain, inoiz baino indar handiagoarekin.

Hori dela-eta, 2010erako, bazkide guztientzako babes handiagoa izateko helburua jarri genion geure buruari eta, ondorioz, hainbat jarduera eta zerbitzu berri garatzea erabaki genuen. Hortaz, urtean zehar diruz lagundutako hiri-koloniak garatu dira, erakundeek eta ikastetxeek gutxien estalitako oporraldietan zehar. Era berean, prestakuntza zikloak burutu ditugu hiru hiriburuetan, lau saiotan banatuta eta bereziki seme-alaben heziketari eta lanaldia eta familia adiskidetzeari helduta.

Aldi berean, bikoiztu egin ditugu gure ahaleginak familientzako informazio, aholkularitza eta orientazio zerbitzuari dagokionez, egoera ahulagoan zeuden familiak bereziki zainduta. Hori guztia kide ugariako familien eskubideak defendatzeko eta abantailak hobetzeko gure eguneroko zereginari alde batera utzi gabe, lege, ekonomia eta gizarte arloei dagokienez. Hamarka bilera egin dira hainbat administrazio eta kargu publikorekin, hala nola politikari eta enpresarierekin, urtean zehar pauso txiki eta handietan gauzatuz joan direnak. 2011rako are erronka handiagoak aurkezten zaizkigu, baina Hirukideren baitako 5.700 familiaren baino gehiagoren batasunarekin inoiz baino indartsuago egingo diegu aurre.

Ignacio Mª De Guinea Llop  
Hirukideko Presidentea





# AURKEZPENA

Hirukide, Eusko Jaurlaritzak Onura Publikoko Elkartearen izendatua, irabazteko asmorik gabeko elkarte akonfesional eta apolitikoak diren Ausarkik (Araba), Lasterbideak (Bizkaia) eta Liluraldik (Gipuzkoa) osatzen dute. Denak sortu ziren Euskadiko kide ugarietako familien eskubideak defendatzeko eta euren aldarrikapenak iritzirik publiko eta agintariengana helarazteko asmo betearekin.

Egun, 5.250 familia bazkide ditu (29.000 bazkide baino gehiago), GKE apolitiko eta akonfesionala da, eta helburu dauka kide ugarietako familien kolektiboren eskubideak bizitzaren arlo guztietan (politika, ekonomia, gizartea, komunikabideak eta enpresak) defendatzea. Hirukidek informazio eta aholkularitza kanpaina iraunkorrak garatzen ditu hiru seme-alaba edo gehiago dituzten familiek edo hainbat errealtate sozial dituzten bi seme-alabako familiek osatutako kolektibo honentzat, eta gizarteari begirako sentsibilizazio eta kontzientziazio kanpainak ere burutzen ditu.

Sortu zenetik, elkarteak Euskadiko kide ugarietako familiei lagundu egiten die euren eskubideen defentsan eta eskubide horiek gainontzeko familienekin berdindu daitezkeen; hori dela-eta, Eusko Jaurlaritzak 2002an Hirukide Onura Publikoko Elkartearen izendatu zuen, bere ohiko jardueraren eta funtzioen garapenaren bidez Euskadiko interes orokorra sustatzen laguntzen duen elkartearen izateagatik.

11 urte hauetan zehar, Hirukide izan da seme-alabak dituzten familien beharren inguruko sentsibilitate handiagoaren protagonista eta sustatzailea erakunde eta administrazioen aurrean, haiekin elkarlanean jardunda.

## Zergatik Hirukide?

Kide ugarietako familiek oso baldintza eta behar zehatzak dauzkan kolektiboa osatzen dute, behar horiek, baina, ez zeuden ez babestuta, ez indarrean zegoen inolako lege jasota. Konstituzio aurreko lege baten ondorioz, inondik inora gizarteko errealtate berriak jasotzen ez zituena, kide ugarietako familiek zigortuak eta

baztertuak ikusten zuten euren burua politika, ekonomia eta gizarte esparru ugaritan.

90eko hamarkada bukaeran, kide ugariko familia kopuru txiki batek Euskadin mugimendu bati ekitea erabaki zuen, xede nagusia izanda kolektibo horren eskubideak defendatzea eta legeria berria bilatzea, seme-alabak dituzten familiak babesteko eta familia bakoitzak duen seme-alaba kopuruaren egitate garrantzitsua hainbat esparrutan aintzat hartua izateko.

Europako kideek abiarazitako familia-politika ezberdinak erreferentetzat hartuta, pausoak emanez joan gara hainbat administrazioekin seme-alabagatiko laguntza ekonomikoen arloan, esaterako, lana eta familiaren adiskidetzeari, hezkuntzari edo etxebizitzari dagokienez.

### Xedea eta ikuspegia

Helburu nagusia da gizarte zibil osoak familiak oro har eta kide ugarikoak bereziki ondasun unibertsala direla barneratzea, baloratu eta babestu beharrekoa. Azterketa soziologiko guztiek frogatzen dute familia gure gizarteko gizarte erakunderik baloratuena dela. Hura defendatzeko guztion adostasuna bilatu beharra dago, edozein izanda ere kidetasun politikoa edo norberaren iritzi morala.

Hirukidek familien babesa bilatzen du hainbat esparrutan; gurasoek nahi beste seme-alaba izateko oinarrizko eskubidea gauzatzeko ahalmena edukitzea bilatzen du, horregatik zigortuak edo baztertuak izan gabe.

Hirukidek ez du laguntza edo limosnarik eskatzen, baizik eta Justizia eta Aintzatespena: egoki baloratu behar da seme-alaba ugari izateak gizarte aurrerapenari egiten dion ekarpena. Gustura egiten dugun denbora eskaintza eta ahalegin pertsonala zein gure erosahalmenaren murrizketa gizartearen gainerakoari onura dakarkioten kontuak dira. Onura hau gastu publikoa aurreztean gauzatzen da, familiak egiten duena Estatuak aurrezten baitu: seme-alabak sozializatu, gaixoak zaindu, adinekoak artatu, langabezia dauden seme-alabak mantendu eta abar, eta era berean, inbertsio moduan gauzatzen da: etorkizunean kotizatuko dutenak gure seme-alabak dira, erosahalmen horren galera jasan ez dutenei ere mesede egingo dieten zerbitzu publikoak mantentzen lagunduko dutenak, alegia.

### ZENBAKIETAN

"Hirukide Berriak"-en irakurleak	19.000
Artatutako bazkideen kontsultak	9.712
On line buletinaren harpidedunak	4.524
Hirukideko bazkide berriak	790
Agerraldiak komunikabideetan	244
Baliabideak, erreklamazioak,...	68
Bazkideentzako deskontu berriak	49
Bilerak Erakunde Pribatuekin	31
Bilerak Institutio Publikoekin	19
Antolatutako jarduerak	9
Bilerak Alderdi Politikoekin	7






## BAZKIDEAK

5.700 familiak baino gehiagok osatzen dute Hirukide; elkarte honetako kide izateko eskakizun bakarrak dira kide ugariako familia izateko titulua edukitzea edo eduki izana eta Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzea. Egun, kide ugariako familien % 30 Hirukideko bazkide dira.

2010ean, elkarteak 34.000 bazkidetik gora lortu ditu, eta horietariko gehienak ondoren deskribatutako lehen bi kategorietakoak dira:

- Eskubide osoko bazkideak: Aurreko baldintzak betetzeaz gain, adinez nagusiak direnak eta jarduteko gaitasuna daukatenak.
- Bazkide gazteak: Aurreko baldintzak betetzeaz gain, adinez nagusiak izan ez arren, 14 urtetik gorakoak direnak, bazkide izateko euren lege ordezkarien baimena behar dute eta ezin dute Zuzendaritza-Batzordean ardurarik hartu.
- Bazkide babesleak: Federazioari bide ekonomikoak ematen dizkieten pertsona fisikoak edota juridikoak (emaileak), elkartean bestelako partaidetzarik eduki gabe.
- Ohorezko bazkideak: Modu nabarmenean kide ugariako familien kolektiboaren defentsan jarduten duten elkarteak eta pertsona fisiko edo-eta juridikoak.

### HIRUKIDE 2010



 bazkide kopurua



# JARDUERAK ETA GERTAKIZUNAK

## Familiatzako informazio eta aholkularitza zerbitzu integrala

Urtean zehar, Euskadi osoko kide ugariako familiek egindako ehunka galdera eta informazio-eskaerari erantzuten zaio Hirukidetik. Egunero, eta modu pertsonalizatuan, gai ugariaren inguruko aholkularitza ematen da telefonoz, telematikoki edo aurrez aurre, bereziki orientatuta laguntzekin, legeriarekin, administrazio-izapideekin edo deskontuekin lotutako gaietan. Era berean, eta beharrezkoa izanez gero, administrazio edo lege-errekurtso edo egintzak burutzen dira behar duten familien eskubideak defendatzeko. Aldi berean, ahalegin berezia egiten da bazkide guztiei informazioa helarazteko, web-gune, hileroko newsletter, hiruhileko aldizkari eta postaren bidez

## Diruz lagundutako Hiriko Koloniak

Oporraldian zehar lana, familia eta bizitza pertsonala adiskidetzeko familia askok dituzten zailtasunak ikusita, Hirukidek haurrentzako koloniak antolatu ditu erakunde eta ikastetxeek gutxien estaltzen dituzten uneetarako. Kolonien bidez ahalik eta ordutegi zabalena estali zen, bestelako aukerak eman eta familia guztiei zati bat diruz laguntzeaz gain.

Koloniak ekainean, irailean eta abenduan burutu ziren, eta zailtasunik handiena kokapena izan zen, hiriburuetako bateko erakunde eta ikastetxeek ez baituzten lagundu euren instalazioak uzten.



## Familia Festak

Beste behin, eta badira 12 urte, Hirukideren Familia Festak burutu ziren hiru hiriburuetan. Urte gehien dituen elkartearen jarduerak berriz elkartu zituen maiatzean, ekainean eta irailean jolas eta festa egun paregabea gozatzeko gogoz zeuden milaka familia.

Puzgarriak, jolasak, ohe elastikoak, haurrentzako ludoteka, magia ikuskizunak, berbenak edo oparien tonbola izan ziren gozatu ahal izan ziren jarduera ugarie-tako batzuk.

Ekitaldiok jarraitzen dute izaten gune ezin hobea Euskadiko familia guztiak biltzeko eta bitarteko bikaina dira gizarte osoari kide ugariko familien egoeraren, beharren eta aldarrikapenen berri emateko. Boulevard MG Gasteizen, maiatzaren 15ean; Casilda Iturrizar parkea Bilbon, ekainaren 19an; eta Anoeta inguruneak Donostian, irailaren 19an, izan ziren hiru festak garatzeko lekuak, 40.000 lagun baino gehiago bilduta.





### Prestakuntza zikloak

Aurten, Hirukideren bi urtetik behineko Biltzarrarekin bat egin gabe, zenbait prestakuntza ziklo antolatu dira familiei seme-alabak hezteko eginkizun konplexuan laguntzeko. Hiru hiriburuetan urteko une ezberdinetan emandako lau hitzaldi izan dira, bertara hamarka familia hurbilduta.

Hitzaldiek gai hauek izan dituzte hizpide: gazteria eta Internet, agintaritza seme-alabekin, nola lagundu ikasketetan eta, azkenik, nola adiskidetu lanaldia eta familia. Guztiak arlo bakoitzeko adituen eskutik.



### [www.forofamiliasnumerosas.com](http://www.forofamiliasnumerosas.com)

Hirukidek 2009an sortua, mantendu egin da aurten Interneteko kide ugariako familien foro berezi hau; familiek eurek beraien egunerokoan sortzen zaizkien dudak planteatu eta argitzen lagundu ahal izateko topagunea.

Honen bidez Estatu osoko familiek hartzen dute parte eta gai nagusien artean ibilgailuen erosketak, oporretarako helmugak, hezkuntza, laguntzak, deskontuak eta bestelako gaiei buruzko galdera zehatzak daude.



### Elikagaien bankua

Zerbitzu honen bitartez, Arabako Elikagaien Bankuarekin batera burutzen dena, elikagai banaketa egin da, modu honetan Gasteizko baliabide urriagoko hamarka familiari lagunduta.

Ekimen honek, duela hamaika urte Ausarki elkarte arabarrak garatua, premia biziko elikagai sortak banatzen ditu.

### Kide Ugariko Familientzako 2010/12 Gida

Eusko Jaurlaritzak sustatuta, bi urteko gida hau Hirukideren laguntzarekin dago eginda, legeriarekin eta laguntza publikoekin lotutako informazio guztia bildu eta eguneratzeaz arduratzen dena, hala nola denda eta erakunde pribatu laguntzaien kopurua handitzeaz, ondoren Gida argitaratu eta banatzeko.

2010ean zehar egindako lana indarrean dauden laguntzen eta legeriaren inguruko informazioa jaso eta eguneratzea izan da, hala nola 2009an zehar atxikitako denda eta erakundeak berrestea, ondoren Gida maketatu eta inprimatzera bidaltzeko. Edizio honetako nobedadea izan da deskontuen atala Gidarekin batera datorren CD batean sartu dela, beraz, ez dago administrazio publikoen atalarekin batera inprimatuta.



### Partaidetza FEFNk antolaturiko Lehiaketetan

Hirukide, bere bazkideen bidez, protagonista izan da beste behin Kide Ugariko Familien Espainiako Federazioak antolaturiko hainbat lehiaketetan. Apirilean, Nerea Sánchez Infante, 14 urtekoa, bigarren gelditu zen "Nire aitona-amonak, familia handi baten jatorria" izenburupean antolatutako Ipuin Lehiaketan, Gabonetan Gabon-Txartelen V. Lehiaketa burutu zen, eta 14 urteko Hirukideko beste bazkide batek irabazi zuen, Eloie Palazuelos Gutiérrezek, hain zuzen, bere irudia elkarte guztien Gabonetako postalerako aukeratuta.



### Haur eta Nerabearen Eskubideen XXI. Urteurrena

Beste behin, Hirukide Gasteizko Udalarekin aritu da elkarlanean Haur eta Nerabearen Eskubideei buruzko Konbentzioaren urteurrenean, urtero azaroaren 20an ospatzen dena.

Eskulan tailer baten bitartez lagundu genuen hain egun berezia ospatzen, eta heldu zein txikiek orri-markagailu eta koadernoak eginez masiboki parte hartu zuten bertan, hainbat elkarte eta Gasteizko Udaleko sailekin batera.





# HIRUKIDE ERAKUNDE ETA ALDERDI POLITIKOekin

2010ean zehar Hirukidek bilera ugari egin ditu Administrazio Publikoetako arduradunekin, hala nola politikariek, horien aurrean kide ugari eta seme-alabak dituzten familien ohiko solaskide eta bozeramailea baita, lana, garraioa, hezkuntza, etxebizitza eta bestelako gaiak dagokienez.

Jarraiki, 2010ean zehar Hirukiderekin bildu diren ordezkari publiko eta politikariekiko batzuk ikusi ditzakegu:

## EUSKO JAURLARITZA

**Isabel Celaá**, Hezkuntza Sailburua

**M<sup>a</sup> Antonia Oscariz Rubio**, *Viceconsejera de Educación*

**Fco. Javier Nogales**, Hezkuntza Saileko Kabineteko Zuzendaria

**Loli García**, Familia eta Komunitate Politikako Zuzendaria

**Isabel Muela**, Turismoko Zuzendaria





### ALDUNDIAK

**Luis Alberto Zarrabeitia**, Arabako Herrilan eta Garraio Saileko Diputatua

**Juan M<sup>a</sup> Aburto**, Bizkaiko Gizarte Ekintza Saileko Diputatua

**Jon Etxebarria**, Bizkaiko Gizarteratzerako Zuzendari Nagusia

### UDALAK

**Asier Aranbarri**, Azkoitiko Alkatea

**José Antonio Santano**, Irungo Alkatea

**Nerea Melgosa**, EAJko Zinegotzia Gasteizko Udalean

**Alicia González**, Donostiako Udaleko Gizarte Ongizateko Zinegotzia

**Manuel Uriarte**, Alderdi Popularreko Zinegotzia Gasteizko Udalean

### EUSKO LEGEBILTZARRA

**Arantza Quiroga**, Eusko Legebiltzarreko Presidentea

**Eider Mendoza**, EAJko Legebiltzarkidea

**Amaia Arregi**, EAJko Legebiltzarkidea

**Gorka Maneiro**, UPyDko Legebiltzarkidea

**Mikel Arana**, Ezker Batua-Berdeak-eko Legebiltzarkidea

**Laura Garrido**, PPko Legebiltzarkidea



### OTRAS INSTITUCIONES

**Emilio Olabarria**, Diputado y portavoz de PNV en la Comisión del Pacto de Toledo

**María Silvestre**, Emakundeko Zuzendaria

**Ramón Cendrero**, Etxegintza etxebizitza erakunde publikokoa





### EKITALDIA EUSKO LEGEBILTZARREAN

Otsailean Hirukidek “Agintari jaun-andreak” bideoa aurkeztu zuen Eusko Legebiltzarrean, Legebiltzarreko Presidentearen, Mahaiaren eta Bozeramaileen Batzordearen aurrean. Ekitaldira bideoko haur protagonistak joan ziren eta legebiltzarkideei hainbat galdera egiteko aukera izan zuten. Halaber, “Zergatik familia?” eta “Zer gertatu zen?” bideoak aurkeztu ziren.

Oso ekitaldi hunkigarria zen; bideoko haur protagonistak hara joan ziren eta legebiltzarkideei hainbat galdera egiteko aukera izan zuten.



## HIRUKIDE HONAKOETAN DAGO

Hirukidek burutzen dituen eginkizunen baitan oro har seme-alabak dituzten familien eta bereziki kide ugarikoen ordezkari izatea dago, kide den eta aldizkako bileretan aktiboki parte hartzen duen hainbat plataforma eta erakundetan:

### Eusko Jaurlaritza:

- Gizarte Zerbitzuetarako Euskal Kontseilua
- Eusko Jaurlaritzako Familia Batzorde Iraunkorra
- Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala
- Hirugarren Sektorereko Sareen Sarea
- Eusko Jaurlaritzako Elkarrizketa Zibilerako Mahaia

### Beste Erakunde batzuk:

- Gasteizko Udaleko Gizarte Gailetako Kontseilu Sektoriala
- Donostiako Udaleko Gizarteko Sektoriala
- Gipuzkoa Aurrera
- Arabako Gizarte Zerbitzuetarako Lurralde Kontseilua
- Kide Ugariko Familien Espainiako Federazioa. Horren bidez:
  - Batzorde Nazionala Ordu-tegi Arrazionalen Alde
  - Patronatu-Fundazioa + Familia (algo así, es lo más parecido que he encontrado)
  - ELFAC, European Large Families Confederation

## HIRUKIDEK HONAKOETAN HARTU DU PARTE

2010ean zehar elkartea txostengile edo bertaratu gisa gonbidatu dute EAEko hainbat erakunde edo administrazioak, seme-alabak dituzten familiekin lotutako gaien inguruko bere irizpidea edo esperientzia ezaugarazteko.

Hauек dira batzuk:

- “Adiskidetuz goaz aurrera” Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Gaietako Sailaren Jardunaldia.
- Bizkaiko Gizarte Ekintzako XX. Topaketa
- Arartekoak eta EHUK antolaturiko Adiskidetzeari buruzko Jardunaldiak.
- Gasteizko Udalaren Udalbatza, Udal Haur Eskoletako egokitzapen aldeiei buruz.
- Azkoitiko Udalak antolaturiko Adiskidetzeari buruzko Jardunaldiak
- Gipuzkoako Batzar Nagusietako Berrikuntza eta Ezagutzaren Gizarterako Batzordeak antolaturiko adiskidetzeari buruzko txostena.
- Emakumeen eta Gizonen Arteko Berdintasunerako III. Arabako Foru Plana





# AKORDIO PRIBATUAK

2010ean zehar, Hirukidek erakunde pribatuekin akordioak sinatzen jarraitu du. Egun ia 300 dira enpresa eta dendekin dituen lankidetzak hitzarmenak horien bidez, bazkideei deskontuak eta abantailak eskaintzeko. Hainbeste familia jasaten ari den lan eta ekonomia egoera konplexua dela-eta, bikoiztu egin dira kide ugariko familientzako akordio eta abantaila ekonomiko gehiago lortzeko ahaleginak. Elikadura, energia, automozioa, hezkuntza, arropa,... sektoreetako onurak eta aisialdiko prezio merkeagoak dira Hirukideko bazkideek baliatu ditzaketen abantailetariko batzuk.

Hauek dira Hirukide edo Kide Ugariko Familien Espainiako Federazioarekin 2010ean zehar lankidetzak hitzarmenak egin edo berriro dituzten hainbat enpresa edo erakunde, onura bereziak gure bazkideei eskaintzeko.





Descubre el mundo con





# HIRUKIDE KOMUNIKABIDEETAN

Prensa-oharrak, jakinarazpenak, zuzendariari gutunak edo iritzi-artikuluak, adierazpen eta elkarrizketak dira elkarteak bere helburu eta aldarrikapenak gizarte osoari ezagutarazteko baliatzen dituen ohiko bitartekoak, komunikabideen bitartez.

Hirukidek komunikabideekin duen konpromiso honek oro har familien kolektiboaren eta bereziki kide ugari-koen bozeramaile bihurtu du elkartea, gizartea sentsibilizatuz eta kide ugari-ko familien benetako egoera plazaratuz. 2010ean Hirukidek 230 agerpen baino gehiago izan ditu prentsan, irratian eta telebistan, eta mintzakide

da, besteak beste, adiskidetzeari, garraioari eta etxebizitzari buruzko gaietan.

Hirukidek komunikazio zerbitzu iraunkorra, familia edo kolektiboarekin lotutako gai guztietan aditua den bozeramaile bat eta hainbat laguntzaile eta familia dauzka, unean-unean komunikabideekin hitz egiten dutenak. Era berean, ahal den neurrian, elkarlanean aritzen da komunikabideekin, eta ahalbidetu egiten die hainbat gai edo esparrutarako kide ugari-ko familiei elkarrizketak edo haien inguruko erreportajeak egitea.

## KOMUNIKABIDEETAKO AGERRALDI KOPURUA



**Hogares con sonrisas muy numerosas**



Una familia numerosa de 10 personas disfruta de un momento de ocio en un parque. Los padres y los hijos se divierten jugando y riendo.

**GIZARTEA**

**A la cola de Europa en ayudas familiares**

El Estado del bienestar Público familiar de los países de Europa y América, y en especial los países del norte, se encuentran en una posición superior a la de España.



**Las familias numerosas toman la palabra**



El día de las familias numerosas se celebra en el Ayuntamiento de Gernika-Luzuriaga. Se trata de una jornada de actividades que pretende dar a conocer las necesidades de estas familias.

**La subida del IVA a partir de julio se cebará en las familias numerosas**

Un estudio de la Confederación Española de Familias Numerosas (CEFN) alerta de que la subida del IVA a partir de julio afectará especialmente a las familias numerosas.



**Las familias numerosas piden unificar las ayudas para evitar desigualdades**

Las asociaciones familiares y autonómicas exigen en su día a día unificar las ayudas para evitar desigualdades.



**«Cargan sobre las rentas familiares los principales recortes»**

Anticipan que un 22% de las familias numerosas está sufriendo en una medida importante.



**Comienzo de curso... para las familias**

**CARTAS AL DIRECTOR**

Movilidad sostenible



**Familias multiplicadas**



**La crisis frena el acceso de familias numerosas a viviendas dignas**



**Fiesta familiar y reivindicativa**



**«Administrazioen aldetik, familia ugariak ez gaude sozialki aitortuak»**

**Hirukide**



**Una fiesta muy numerosa**





# ARGITALPENAK

[www.hirukide.com](http://www.hirukide.com)

Elkartearen web-guneak informazio-bide nagusia izaten jarraitzen du bazkideentzat eta gizartearentzat oro har, hilerro bisitak eta galderak gehituta. Bertan kide ugariko familiekin lotutako berriak eta gertakizun zein jarduerari, legeria zein laguntzei buruzko informazio guztia eskegitzen dira. Ohikotasunez eguneratzen diren hamar atal baino gehiago ditu, eta etengabeko informazioa ematen zaie familiei federazioaren eginkizunaren inguruan.

Bilatzaile eta datu-base oso baten bidez legeriari eta diru-laguntzei buruzko atal-tan nabigatu daiteke edota bazkideentzako deskontu esklusiboak edota lan, umeentzako material edota ibilgailuen eskaerak eta eskaintzak aurkitu.

Gunea elebiduna da, euskaraz eta gaztelaniaz dago. 2010ean zehar 95.000 bisita baino gehiago jaso zituen, eguneko batez bestekoak 260 bisita gaituta.



## Newslettterra

Urtetik urtera indar handiagoa hartzen ari da barne komunikazioko bide hau. Alta emandako 4.000 lagunekin baino gehiagorekin, familia bazkideei edozein informazio mota jakinarazteko modurik azkar, ekologiko eta eraginkorra da.

Elkarteak hileroko "Hirukide egunean" igortzen du posta elektronikoz, bazkide, enpresa eta pertsona interesdunentzat azken hilabeteko berri interesgarrien laburpena jasotzen duen Newslettterra. Bazkideei informazioa emateko bitarteko arin eta ekonomikoa da, euskaraz eta gaztelaniaz eskainita. Horren bidez aurrezpen ekonomiko garrantzitsua lortzen du elkarteak eta ekidin egiten du gutun eta liburuxka kopuru handia igortzea, Hirukiden beti nagusi izan den ingurumenarekiko begirunea mantentzen laguntzeaz gain.

Berriak, ohartarazpenak, agenda, deskontuak, eskari-eskaintzak eta familiarterako aisialdia dira bertako atal nagusiak, eta hileroko kide ugariko milaka familiaren etxera iristen da.

## Hirukide Berriak

Hirukidek duela hamar urte argitaratzen duen hiruhileko aldizkaria, doan banatzen da kide ugariko familia, erakunde publiko eta pribatu, komunikabide eta abarren artean.

Nagusiki kide ugariko familiei zuzentzen zaien aldizkari osoa, laguntza publikoen, federazioak lortutako akordio pribatuen, egindako deialdi eta jardueren, artikulua erabilgarrien, aisialdiaren eta abarren inguruko azken

nobedadeak jasotzen ditu, baita familia bazkideei eta pertsonaia publikoei egindako elkarrizketak ere.

Aurten, besteak beste, África Baeta, Abraham Olano txirridulari ohia edo Arantza Quiroga Legebiltzarreko Lehendakaria elkarrizketatu ditugu. Familia bazkide askorentzat, Internet ez dutenentzat, alegia, Hirukideren informazio iturri nagusia izaten jarraitzen du.



Gure eskerrik beroena 2010ean Hirukideren gure zerbitzu eta jarduerak garatzea ahalbidetu duten babesle eta laguntzaile guztiei.

ANTOLATZAILEAK / COLABORADORES:

